

## FADURA-BASERRIA 1

Zer esan nahi du? Hitz generikoa da, izen propio bihurtuta. Getxon adibide ugari: **Bolue**, **Aixerrota**, **Baserri**, **Abra...**(Fadura 1608an dokumentatua. Ahoz Fadurea/Fadure)

-Esanahia? Euskarazko hitz bat da, erdarazko "marisma" edo "zona pantanosa" esan nahi du. Hitz hau latinetik dator (Latinez: Paludis-Paluda "ibarra", 'marisma', 'pantano...').

Gero, metatesia (silabak txandakatzea) >> PADULA. Ostean, bokal arteko -L- -R- bihurtzea dator (adibidez: Alaba > Araba): PADURA. Bi aldaki, **Fadura** eta **Padura**. Getxo ingurukoa: FADURA

Paludismoa, malaria gaixotasunaren sinonimoa da eta eta hortik dator Fadura hitzaren jatorria; latinezko PALUDISMO, PALUDIS-da. Faduretan eta ur geldoetan bizi da normalean Anopheles eltxoa eta intsektu honek kutsatzen du paludismoa. Beraz, fadurak toki urtsuak eta bereziak izan dira beti.

## FADURA-BASERRIA 2

**Arzubiaga** (1500 inguruan jada bazegoen etxea) etxe honen izenaren jatorrizko osagarriak argiak dira, harri, konposatuetan ar-, zubi eta -aga atzizkia. Garai batean XV. mendera arte (eta ostean ere maiz) zubi gehienak zurezkoak ziren. Hortik izena: berezia zelako harria erabiltzea!!! Argi dago etxeak izena ondoan zegoen harrizko zubitik hartu zuela.

Etxe bakarra zenean Arzubiaga deitzen zuten, baina inguruan etxe gehiago eraikitzean bereizi beharra egon zen eta izen hau zuten hiru etxe sortu ziren **Arzubiagagoikoa** Berangon, autobidearen eskuinaldean, **Arzubiagabekoa** aipatutako bidearen ezkerrean, ezaguna aurreko aldean duen palmera ederrarengatik eta **Arzubiagajauregi** ahoz **Yeuri** izenaz ezaguna, autobidea egitean betiko desagertu zena. Datuak ikusita litekeena da azken hau zaharrena izatea. XX. mendearen hasieran **Jauregi-Argalena** izenaz ezagutzen zen etxe hau. Azken honen ordeztu etxe berria eraiki zen pixka bat gorago. Izenari dagokionez deigarria da **Arsubi** deitzea, eta ez **Artzubi**, Bizkaitik kanpo ohikoa den aldaera.

Aitortu behar da izen bat baino gehiago agertzeaz gain, idazkerak ere oso ugariak direla: Arsubiaga, Arzubiaga, Arçubiaga, Arzuuiaga, Arrizubiaga

Inguruko lurrek izen hau hartzen zuten **Arzubiagako fadura**, **Arzubiagaazpi** eta **Arzubiagabarrena** ere bildu ditugu. Lehenengoa aldaketarik gabe ageri da hirurogei urtetan (Arzubiaga-aspi, 1857-1917) eta deigarria da bokal bi agertzea eta bat ez egitea Arzubiagazpia moduan. Bigarrena askoz ere gehiagotan ageri da dokumentatuta eta haren barruan **Fadurabarriek** izeneko soroa zegoen. Inguruko toponimian oso ohikoa den **-barren** posposizioa lur sailen izenetan, askotan etxe izen bati atxikita.

## FADURA-BASERRIA 3

Getxon izen askok florari egiten dio erreferentzia eta bidean aurkituko ditugu hainbat eta hainbat.

**Salsidu** (Salce/salse 'sahatsa')+du(i)a: Sahatsak dauden lekua.

**Lexarreta**: Lexar+eta: Lizarrak (leixarrak-leizarrak-lexarrak) dauden lekua.

**Makaleta:** Makal+eta: Makalak (txopoak) dauden lekua.  
**Aretxeta:** Aretx+eta: haritzak dauden lekua.  
**Saratsaga:** Sarats+aga: Sahatsak dauden lekua. Sauces.  
**Arteaga:** Arte+aga: Arteak dauden lekua. Encinas.

**-AGA, -ETA** eta **-TZA** atzizkiak, toponimian hain emankorrak direnak:

**-AGA**, gaur egungo -ak pluralgilearekin dago lotuta. Umeak > \*umeak+(e)i > \*umeaga+ei > umeei. Dena dela, badirudi zaharragoa dela ahostuna (sonora):  
-aga > \*-ag > -ak

**-ETA**, gaur egungo deklinabide markekin lotura estua du: (ugaritasuna adierazteko) HARRI-AK. Nora zoaz? HARRIETARA. Non zaudete? HARRIETAN. Azkenean lekua Harrieta > Arrieta. Areeeta...

**-TZA**, Hondartza: Playa, arenal. Hondar+tza. Jendetza, papertza... Artatza (Arte+tza: Arte ugari dagoen lekua 'encina')  
• Oikonimoen azalpena eman daiteke

**BIDETIK** (zuhaitzak)  
Bidetik hainbat zuhatiz ikus daiteke.

**Sahatsa** (sauce)  
Oso ugariak dira, batez ere, ibai ondoan. Zuhaitz hostoerorkorrak dira. Dioikoa da, hau da, sahats arrak eta emeak daude. Arrak lore horiak dauzka; emeak, ordea, lore zuriak. Intsektuek polinizazioa egiten dute.

Egipton, Asirian eta Sumerian, baita Hipokartes ere, bazekiten sahatsaren enborrharen azala oso ona zela minen eta sukarraren aurkako tratamendua emateko. Indigena amerikarrek ere erabiltzen zuten. Gaur egun aspirinaren jatorria da.

**Erramua** edo **Ereinotza** (Laurel)  
Dioikoa da. Mediterraneo aldekoa da baina Euskal Herrian sarri aurki daiteke. Bere hostoak sukaldatzeko erabiltzen dira. Urdailerako tonikoa da, baina hanturak eta larru-gaitzak tratatzeko ere erabiltzen da. Hala ere hosto asko jaten bada pozoitsua izan daiteke.

**Kanabera** (cañizo)  
Hezeguneetan bizi dira. Errizomen bidez zabaltzen dira hezeguneetatik.  
Oso garrantzitsuak dira, izan ere, animalia ugari, hegaztiak batez ere, bizi dira, ugaltzen dira eta babesten dira kanabera artean. Oso diuretikoa da eta esne-kentzeko ere erabiltzen zen. Baita ile galeraren kontra ere. Gaur egun bioerregaia da.

**Haltza** (aliso)  
Oso ugari Europan. Ibaien ondoan bizi da eta sustraien noduluetan bizi diren bakterioei esker nitrogenoa (simaur ona) lurrian finkatzeko gaitasuna du.

**Lizarra** (fresno)  
Normalean hezeguneetan bizi dira, makalekin (chopo), sahatsekin (sauce), zumarrekin (olmo) eta arteekin (encina).

**Zumarra**(olmo)  
Ibaien ondoan bizi da. Hostoak asimetrikoak dira. Bere fruituak samara deitzen dira.

**Arteak** (encina)

Hosto erorkorra dauka. Zuhaitz monoikoa da, hau da, bai lore arrak bai emeak indibiduo berean daude. Polena haizeari esker zabaltzen da.

Ezkurak abereek jateko erabiltzen dute. Bere enborra, hosto eta ezkur zehatuta egosten dira eta nahaste hori idorgarria (astringente) da eta zauriak desinfektatzeko ere erabiltzen da.

Mitologian, Arteh, euskal mitologiako jainkoa Pirineoa aldean bizi zen.

#### **Makala** (alamo)

Oso azkar hazten dira. Enborra zuria da. Inguru hezeetan eta jorietan bizi dira nahiz eta hondar lurretan ere bizi daitekeen.

#### **Haritza** (roble)

Artea bezala, Quercus generokoa, ehunka zuhaitzen izen orokorra da. Bizkaieraz haretx. Ametza ere quercus generokoa da (Ametsaga).

### FADURA-BASERRIA 4

Larrañazubi, **Bolunzarretako zubia** (-a) (Zubia)

Itxura guztiaren arabera leku-izen honen osagaiak larrain eta zubi dira, baina gauzak ez dira dirudien bezain argiak. **Larrañazubi** horrela oso berandu dokumentatu baitugu 1881ean. Urte hartan Baserri inguruko biztanleak kexu agertu ziren zubiaren egoeragatik, baina lehenagoko aipuetan **Naranjazubi** (1857) eta **Laranjazubi** (1872) ageri dira. Tamalez, hauek ere gutxitan ageri dira, baina aipu hauek ikusita pentsa genezake oinarrian laranja fruitu arbola dugula eta herri etimologia dela medio aldatu dela izena. Oso interesgarria da 1881ean konpontzeko egin zen eskaria:

*"...Los que suscriben v[e]z[in]os de esta anteiglesia, en el barrio de **Baserri** exponen que hallandose destruido é intransitable, como es publico, el puente llamado **Larrainya-subi**, entre las casas llamadas **Arzubiaga becoa** y **Jauregui argalena** de esta jurisdiccion, como puente además del indicado serbicio comun, és con especialidad para el paso á la parroquia de la sitada Casa Jauregui argalena y a la vez como de la misma barriada, indispensable para los serbicios particulares, por este motivo, para que pueda haber transito y ebitar una desgracia de personas que tengan que transitar por el. Suplican se ordene se efectuen las obras necesarias".*

Azkenean, 1932an inguru hartako bidea konpondu zuten euria egiten zuenean ezin baitzen ibili. Bidea alde bietan igo zuten, urak gora egitean ez estaltzeko, eta kale egin. Larrañazubi izenaz gain ahoz **Bolunzarretako** zubi deitu izan da, nahiz eta izen hori idatzirik ez agertu.

### FADURA-BASERRIA 5

**Bolue**: gaztelerazko "molino" esateko beste berba bat.... hortik datoz **Bolibar**, **Bolueta**, **Bolunburu**, **Boluntzarreta**... edo **bolin- bolinaga**).

Errota, latinetik Rotam-etik (rueda) eta Bolua ere latinetik, molinum-etik (molino), bolinu > boliu > bolu.

Izen generikoak propiotzat erabiltzea ohikoa da, Getxoko beste adibide bat: BOLUE (ahoz), BOLUA (normalizatua). Errota esanahia dauka.

**Bolunburu:** Izenaren osagaiak bolu 'errota' eta buru dira. Nahiz eta bolu hitza gaur egun erabili ez, antzina arrunta zen latinetik ere datorren errota hitzak ordezkatu zuen arte.

**Bolunzarreta** Bolunzarreta (eta ez Boluntzarreta): toponimoaren osagaiak bolu, euskara zaharrean 'errota' esateko hitz arrunta gaur egun toponimian besterik ageri ez zaiguna, zahar eta hain arrunta den -eta atzizkia dira. (Errotaren irudia erakutsi)

Erroten inguruko informazioa emango dugu: Azalpena eman. Errota gehienak uraren indarrez ibiltzen ziren Euskal Herrian... baina batzuk haizeak mugitzen zituen... Aixerrrotaren aipamena ere egin dezakezu, izen generikoak izen berezi bihurtzeko prozesua azaltzeko... (Izena: Izen generikoa da, erdarazko 'molino de viento' izendatzeko erabiltzen zena... baina izen propio moduan geratu zen. Bizkaieraz Axerrota beharko lukeen arren, Aixerrrotak erabilera zabala duenez... Haize-errota, Axe+errota, **AXERROTA**, baina normatiboa, **AIXERROTA**. Hori esatea Eleixalde esatearen parekoa da, Elexalde da).

#### FADURA-BASERRIA 6

Getxo eta Berangoren arteko muga

#### FADURA-BASERRIA 7

**Baserri:** Oso toponimo interesgarria. Euskal Herrian, oro har, galdu du jatorrizko esanahia baina Getxon eta Uribe Kostan bizirik dago oraindik: aldeako-etzé (aldeatxe) versus baserri.

Baserriak "caserío" batzuk hartzen ditu bere barne.

Erandio-Leioan (bietako batean) ere Baserri auzoa eta Mariñerri (itsaso aldera ematen duena). Inguru honetan etxe gutxi izan da eta, batez ere, getxoztarren abereak bazkatzeko lurak izan ziren dokumentazioan ongi azaldu bezala:

*"Está destinado a pasto comun gratuito al vecindario de aquella parte, produce yerba y argoma, ésta para abono de las tierras convertida en estiercol."*

**Kontrasola:** (Mendimalda); Santa Kolomara bidean ezkerretara

Eguteran, eguzkira begira dauden lur sailen izena Eguzkitza izan ohi da eta eguzkira begira ez daudenena, hozpelan, kontrasol. Bizkaian hitz arrunta da, gaztelaniatik hartua.

**Kanteragan:** (Basoa) Santa Kolomara bidean eskuinetara

Izen gardena Bizkaian arrunta den kantara 'harrobi' eta gan (gaina) hitzez osatuta. Kantara hitzaren ordezkari erdarazko cantera dugu hemen.

#### FADURA-BASERRIA 8

Errotaetxe eta Santa Koloma. Ermita gainean dagoen etxea (Errotazainaren etxea. **Rotaetxe**...) Bitxia benetan **Errotaetxe** izena eduki eta errota izan zelaren susmorik ez egotea. Behin ere ez da errotatzat hartzen eta lekukoek ere gauza bera diote. Antzineko errotariaren etxea ote zen? Ezin argitu. Ohikoa den bezala hasierako bokala kendu du administrazioak, nahiz eta ahoz ongi gorde den. (pena merezi du 20 metro igotzea etxerantza Martiartuko dorrea eta Bolueko aran osoa ikusi ahal izateko)

Errotaetxeko Santa Kolunba (latinez usoa) basiliza. XVII. mendekoa da. Harlanduzko edo silarrixka eta harri-hormaz eginiko eraikina da, eta estali gabeko egurrezko armazoa dauka. Aurrean, neurrizko elizpea du, horma batek eta barrek nabetik bereizita. (Konturatu leihoaren kokapenean, bakarra dago eta eguzkia sartzeko moduan eraikia)

Kondaira: (Iturburua) Ahozko tradizioak dioenez getxoztarrak lehorre handiko garaietan leku honetara etortzen omen ziren; antza denez, usoei deitutakoan, lurretik ura ateratzen omen zen hemen.

Santa koloma ermitak ere badauka bere istorioa. Getxoztar aberats batek **Kanteragane** mendi gainean (Getxo eta Leioa arteko mugan) ermita bat eraiki nahi izan zuen, baina goizean eraikitakoa, misteriotsuki, gauz desegiten zen eta materialak iturburua zegoen lekuan agertzen omen ziren. Egun bat eta beste bat errepikatzen zen pasarte. Azkenean gizon aberatsak gaueko material garraio misteriotsu hura ikusita, ermita, harriak goizean agertzen ziren lekuan eraikitzea erabaki zuen. Gaur egun ermita dagoen lekuan, alegia. Deigarria da istorio hau hainbat lekutan biltzen baita Euskal Herri osoan Bilboko Begoña basiliza kasu. (Columba latinez usoa da horregatik ermita eta kondairaren arteko erlazioa).

## FADURA-BASERRIA 8

Berriro Getxon sartu gara

**Ibarrekoerrota:** (ahoz Iberkoerrota)

Izen gardena azalpen berezirik eskatzen ez duena. Erdaraz "ibarra" vega da (1996an arazoak egon ziren errota hau Getxon oso osorik edo zati bat Berangon ote zegoen jakiteko. Azkenean oso osorik Getxon zegoela erabaki zuten). Ibarreko errota oso ondo kontserbatuta dago. Bere kokapena ere deigarria da, Ibarren, baina leku zabalean eta Santa Coloma ermitapean.

Oraindik ikus daiteke belardian ubidea eta urtegia. Beheko partean, errotape edo estolda, bere lana egin ondoren ura ibaira bidaltzeko. Duela gutxi arte bere makinak ere barruan zeuden, bi errota hain zuzen ere. Azken erabilera duela urte gutxi egin da (1960-edo bere lana utzi zuen), dudarik gabe, aldatu behar izan ditu egiturak etxebizitza hutsa bihurtzeko. Bere ondoan, irin-multzo osatzeko labe bat zegoen. 1795eko fogerazioan agertzen da (aurrekoetan ez), beraz data horren inguruan (apur bat lehenago) eraiki zela pentsa dezakegu.

Ibai txiki honetan errota asko metatzen dira oso gunee txiki batean. Hemen ikusten da aktibitate horien garrantzia eta errekurtsio naturalaren ustiapenaren beharra.

## FADURA-BASERRIA 9

Uraren zikloa: Ziklo hidrologikoa

Euria edo elurra egiten duenean lurrazalean erortzen da. Gero azaleko edo lurrazpiko uharretatik zehar isurtzen da harik eta ubideren baten ur-emariarekin bat egin arte edo lurrean barna iragazi eta akuifero izeneko ur-masarekin egin arte. Urak grabitatez zirkulatzen du itsasora heldu arte.

Euri uren kopuru handia (bai lurrean bai itsasoan) lurrundu egiten da, hodeiak osatu eta berriro lehorrera prezipitatzen da, zikloa osatuz.

Bizkaiko ibaiak ibilgu laburra dute. Normalean ezin da nabigatu, eta emari txikikoak dira. Hala ere, Balore eszeniko handiko ibaiak dira. Antzinatek gizakien kokaguneak ur-sistemaren batetik hurbil kokatu izan dira horrek baliabide ugariago eskaintzen zituelako (arrainak hartzeko, landatzeko). Horretaz gain onura handikoak izan ziren beraien energiaren baliatzeko: burdin industriarentzat (burdinola edo ferrerientzat) eta boluentzat.

Bizkaiko ibaiak oso ibilbide motza dute, batez beste ez dira berrogeita hamar kilometrora heltzen baina goibehera izugarria gaingitzen dute. Isurialde atlantikoan daude kokaturik. Gehienetan malda gogorrak azalduko ditu iturburutik hurbil eta ibilguan aurrera egin ahala eta ur-hobira hurbildu ahala apurka-apurka leundu egingo da.

Ibaietako aldean egituraketa: Ibaia luzetara egituratzen da. Lehen zatia, Krenon izeneko, ibaiburuaren aldea da. Malda dela eta, higadura ez da makala izaten eta ondorioz, erosioa gogorra da. Ibaia hondoan harri eta errekarri handi eta ezegonkorak aurkitzen dira. Hemen goroldioren batzuek eta arrabaren batzuk lortzen dute bizitzea. Animaliak hondakin jaleak izaten dira

Tarteko ibilguari Ritron deritza. Urak abiadura galtzen du, baina oraindik jalgipenak baino garrantzi gehiago dauka garraiatzeak. Orain landare fanerogamoak gai dira sustraiak finkatzeko. Animalien artean salmonidoak (izokinak eta amuarrainak) eta zarboak (barbo) izaten dira nagusi.

Ibaian beheko ibilguari potamon deritza. Malda gutxi duen aldea da. Ibaiak motel egiten du aurrera. Urek gero eta indar gutxiago dute eta, ondorioz, oxigeno gutxiago dauka. Zarboa eta lina batez ere bizi dira hemen.

Bizkaiko ibaiak apenas daukate potamon hori.

## FADURA-BASERRIA 10

**Boluek** eta **Gobelak** bat egiten duten lekua (bonba etxean) Biologiari buruzko azalpenak eta toponimo hauek azalduko ditugu:

**Gobela:** Gaur egun izen honek ibaia besterik izendatzen ez badu ere antzina inguru zabala izendatzeko erabiltzen zen, Faduratik mendilerroaraino Neguri, Alango etab.. Etimologia iluna da.

Gobela ibaia Getxoko ardatzeko bat izan da errotak mugitzeko indarra ematen baitzuen ("errotatxu" salsidun), nahiz eta muga ere izan den. Ibaia **Avanzada** inguru itsasoratu zen garai batean baina **Areeta** finkatzeko lanen gainean alderantzizko bide hartu behar izan zuen eta Ibaizabal behera zihoanean bera gora zebilen. geroago hormen artean sartu, estali eta azkenik berriro antzinako bidera itzuli eta zuzen **Abrara** bideratu zuten.

Ezin da aipatu gabe utzi Erandion, **Martiartu** ondoan dagoen errota bat, gaur egun **Gollorta** izenaz ezagutua, 1600ean **Gobelarrota** izenaz ageri dela eta izen hau dokumentatzen dela 1896 arte .

Gobela ibaiak 9 km luzera du; Sopela eta Barrika artean dagoen Gane muino txikian du ibaiburu. Sopelan **Lemosa** eta **Saitu** erreken urak hartzen ditu. Getxon **Martiartu** eta **Bolue** erreken urak jasoten ditu.

Ez bakarrik ubide nagusiak; **Muñarrikolanda** erreka eta **Bolue** ibaia ere aipatzea merezi dute. Lehenbizikoa Urdulizko haitzetatik dator (207 m), ibaia **Unbe**

menditik (265 m) dator eta Martiartu harana zeharkatzen du 7 kilometrotan zehar, Gobela ibaiarekin bat egin arte. Bolue hezegunea sorten da leku honetan.

Bolua edo berton erabiltzen den "Bolue" Uribe Kostako hezegunerik esanguratsuenetakoa da tamainagatik eta aniztasunagatik. Espezie askoren bizilekua izateaz gain (arrain hiruarantza edo dortoka istilzalea adibidez) erriberako landareria aberatsa du

Antzina **Abran**, **Areeta** eta **Arriluze** artean izurtzen zen. XVI. mendean ibaia bideratu zen, eta XIX. mendean berriro berbideratu zuten, **Udondo** ibairaino eta Ibaizabal izurtzen da gaur egun, Leioan, zubiaren azpian.

Ibai ertzetan zuhaitz oso gutxi dago: landararik arruntenak belar nitrofiloak, sahatsak eta kainaberak dira.

Gobela ibaian makro ornogabeen komunitatea oso xehea da, kironomidoak, simulidoak eta oligoketoak dira nagusi. Gobelan espinosoak eta aingirak ere badaude. Boluen foxinoa, zamotxoak eta loinak daude.

Arrain espinosoa (Gasterosteidae fam. )

Arrain txikia da. **Galindo**, **Gobela** eta **Udondo** ibaietan baino ez da bizi Bizkaian. Harrapakari aseezina da eta ornogabeak eta arrain txikiak harrapatzen ditu. sexu dimorfismo argia dute: emeak azkarrago hazten dira. Errunaldia udaberriaren amaieran gertatzen da: arrek, sabela gorritua izaten dute, habiak egiten dituzte mukiez landareen artean, eta limurketa eta emeengatiko borroka burutu ondoren emeok errutera behartzen dituzte. Horren ostean arrautzen ernalkuntza dator, eta bai horiek zaintzeko eta babesteko aldia ere; habia arrak zaintzen du inkubazioak irauten duen bitartean eta arrainkumeen lehenengo aстера arte.